

1992ko otsailak 16

Bizitzak eramaten gaitu toki batzuetara. Beste batzuetara geu goaz, geure kabuz. Baina hilerri eta etxe-hondakinetera, zabortegi eta orube mortuetara jotzen dudanean, norena da bultzatzen nauen eskua?

1992ko apirilak 5

Erdi lotako ametsa gogoan:

Kale estu eta ilun batean noa, bakarrik. Ile motz horia duen neska eder bat dator, minigona txuriz jantzia. Arraia txuri-beltzak dituen mahuka motzeko elastikoa du soinean. Mahuketatik, ordea, ez da besorik ageri. Besamotza da neska.

Nire parera iristen denean, ea pixa egiten lagunduko diodan galdetu dit. Harrituta geratu naiz, pixka bat beldurtuta ere bai. Baietz erantzun eta kale bazterrera lagundu diot. Kuleroak jaitsi dizkiot han, eta makurtu eta pixa egin du, lasai. Ondoren, kuleroak jantzi dizkiot. Eskerrak eman dizkit eta aurrera jarraitu du neskak.

Hasierako larritasuna gaindituta, pozik nago orain. Neskari lagundu egin diot, besterik gabe, eta ondo portatu naizelako irudipena dut.

1992ko abuztuak 23

Uda beroak izerdiarazi eta itotzen gaituenean ere, barru-barruan guk udazkena. Alferrik nahi izango du uda harroak –publizitate kanpaina erraldoi– udazkena gure barne epeletatik erauzi.

1992ko irailak 5

Zahartu, zikindu, herdoildu, gastatu, puskatu, hautsi, galdu, bertan behera utzi edota ahaztu dena baino ez zaigu geratzen. Horixe eutsi behar diogu, goi mailako garai distiratsuotan. Txikiak izan, txikia maite. Nekea dugu atsedenerako aukera bakar, mina gozamenerakoa, dardara lasaitasunerakoa; galtzea da gure irabazpide bakarra. Sakoneraino jo dezagun, ordea, egoskor, zahartu, zikindu, herdoildu, puskatu, hautsi edo galtzeko beldurrik gabe. Hor gaude gu eta horixe da garrantzitsuena, horixe da dena.

1992ko urriak 10

Artista atzeratu eta analfabetoak

Inoiz baino hizkuntza artistiko berri gehiago sortu da azken bi hamarkadetan. Genero edo arte mota berriez gain –bideo-klipa, bideo-arte, bideo instalazioak, perfomanceak, ordenagailu bidezko plastika, infografia...–, lehendik finkaturiko generoen egokitzapen eta nahasketa berri eta kontaezinak sortu dira, teknikaren aurrerapenak ekarri dituen baliabide gero eta sofistikatu eta ikusgarriagoei esker.

Ezin da ukatu irudimen handiko artistak izan direla teknikek emandako aukera horiek baliatu eta hizkuntza berriak sortu dituztenak. Baina, nolana ere, hizkuntza artistiko berri horietako lanik gehientsuenetan, hizkuntzaren beraren asmaketa izan ohi da garrantzitsuena, hizkuntza berriaren sorrera bera da hartzailea harritzen eta

harrapatzen duena. Areago, kasu askotan helburu nagusiak ez dira artistikoak izaten, teknologikoak edo publizitarioak baizik. Alegia, artistikoak ez baina sasiartistikoak dira, zenbait kasutan, teknologiaren bidez sortu diren hizkuntza berriak.

Hizkuntza berriak sortzeko bideak zabalitzeaz gain, egindako lanari oihartzun eta zabalkunde handiagoa emateko ere balio du teknologiak adierazpen artistikoaren munduan, hartzailea errazago harrapatu eta bereganatzeko aukerak eman ditzakeen neurrian. Esate baterako, zinemak nobelarekiko zein antzerkiarekiko duen abantaila teknologikoa da funtsean. Teknologiari esker, zinemak pertsonaiak eta beren mugimendu eta ekintzak zuzen eta gertutik ikusteko aukera ematen du, eta ikuspegi hori antzerkiak ematen duena baino askoz ere zalu eta aberatsagoa da. Hortik dator, batez ere, zinemagintzak mende honetan lortu duen arrakasta eta nagusitasuna. Baliabide teknologiko berri ikusgarriak erabiltzen dituzten hizkuntza artistikoak beharko dira nagusitasun horri aurre egiteko.

Teknologiaren erabilera artistiko gero eta ugariagoaren ondorioz –eta arteak teknologiarekiko duen menpekotasun gero eta handiagoaren ondorioz–, ekoizpena ahalbideratzeko borroka bat bizi beharra dute artista asko eta askok. Zinemagileek izan ohi duten lan egiteko modua da borroka horren paradigma ezagunena: bere lanaren arrakasta ekonomikoa kontuz begiratu beharra du nahitaez zinemagileak, hurrengo filma egiterik izango badu. Teknika berrien erabilerak sortutako hizkuntza artistiko ugariak lantzen dituzten gainerako artistek ere, kasurik gehienetan behintzat, bizi dute arazo hori, teknikarekiko eta bere baldintzekiko morrontzarena: ekoizpenerako gastuak, talde lan profesionalarekiko menpekotasuna, merkatuarekiko betebeharrak...

Panorama horren aurrean, aukera ekonomikoa eta ezagutza tekniko gutxi dituen artista atzeratu eta analfabeto bihurtzen da, hizkuntza artistiko zaharrak –klasikoak– baino ezin baititu erabili bere lanean: literatura, tresna apalez eta efektu berezirik gabe egindako musika, teknika arrunt eta eskuharrez egindako pintura edo eskultura... Oso mugatuak ditu, artista atzeratu eta analfabeto horrek, ezer berri eta ikusgarri sortzeko aukerak. Irudimena eta sormen ahalmena baino ez du izango horretarako. Desabantaila ikaragarria du, beraz, arte lanaren hartzailea harritu, harrapatu eta inguratzeko erraztasunak ematen dituzten teknikak ezagutu eta erabiltzen dituen artistaren aldean. Oso nekez lortuko du inoren arreta bereganatzerik.

Beraz, aukera egin beharra du artista atzeratu eta analfabetoak: teknikaren munduan barnerratu eta hizkuntza berrien arteko lehian ahalegindu, edo, besterik gabe, bere garaiko adierazpen artistiko nagusien zurrunbilotik kanpo geratu eta teknika klasikoetan bideratu bere irudimen, sormen eta adierazpen ahalmena.

Bigarren aukera hau eginez gero, sormenerako indarrak gorde ahal izango ditu artista atzeratu eta analfabetoak, ez du arazo tekniko edo materialik izango, eta noiznahi ekin ahal izango dio bere lanari, bere erara. Baina artista atzeratu eta analfabeto gehienen kasuetan –oso ikuspegi orokorra lantzen ari garenez, salbuespenak ere ugariak dira, meritu handikoak gehienak–, ero eta zentzugabea izango da merkatu handien bila jotzea. Artista atzeratu eta analfabeto gehienei, ahanzturaren erresuma baino ez zaie geratzen, gaur egun, esploratzeko, hots, hizkuntza artistiko –eta sasiartistiko– berriek utzitako hutsarteak. Hutsarte horietan miatu beharko du, artista senaren laguntzaz, bere ahotsari nortasun berezia emango dion zerbait esango badu.